

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus - www.donostia.ehbildu.eus -

IFK/
CIF

P2007

TEE/R

EL

01200

697

10655

n 1

2011-

06

**ARAU PROPOSAMENA, EH BILDU TALDEAK EGINA, UDALAREN HORNIDURA ETA
SANEAMENDU ERREGELAMENDUA ALDATZEKO**

Tarifa-politikaren xedea da ordainagiri bidez zenbat diru bilduko den erabaki eta horien egitura ezartzea, hau da, zerbitzuaren erabiltzaileei kuotak nola aplikatuko zaizkien zehaztea. Tarifen egiturak, era berean, erabilera bakoitzak ekarpen egoki bat egitea izan behar du gida, batez ere eragin sozialak kontuan hartuta.

Hori dela eta, guk uste dugu NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO JARDUERETARAKO urez hornitzeko tasa bat sartzea komeni dela, jarduera erabilera orokorretatik bereizitako zerga-tratamendu espezifikoa izateko modua izan dadin.

Proposatutako tasa berri hori Ordenantza Fiskalean sartu ahal izateko, eta izan behar duen babes eta estaldura juridikoa izateko, Udalaren hornidura eta saneamendu Erregelamendua aldatu behar litzateke aurrena, eta **kategoria edo erabilera berri bat** sartu han: "**Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako erabilera**", zehazki.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldeak araudia aldatzeko egin duen proposamena, azter dadin:

ERABAKIA

1. Ontzat jotzea Udalaren hornidura eta saneamendu Erregelamendua aldatu eta, erabileren artean, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako erabilera sartzea, zerga tratamendu espezifikoa bat izateko modua izan dadin, hartara, Urez hornitzeko ordenantzan.
2. Ondorioz, Udalbatzaren Organo Araudiaren 115. artikuluan jasotakoa aintzakotzat hartu eta aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eginaraztea arau proposamen horri.

Donostia, 2024ko urtarrilaren 5a

Juan Karlos Izagirre Hortelano,
EH Bildu udal taldearen bozeramailea.